



IKUSMIRA

HENDAIA, MARRAZKITAN JASOA

Gaur zortzi Hendaian izandako SketchCrawl deialdia arrakas-
tatsu joan zen. Eguraldiak ere marrazki maratoiaren alde
egin eta tregua tarte zabal samarrak eman zituen. Hendaia-
ko kaleetan barna topatu zituzten marrazkilariek koaderno-
an jasotzeko perlak; itsasoak emanak, portuan jasoak, Bida-
soaren bazterretan ikusiak, eraikinek iradokitakoak edota
pertsonek oparituak. Euskal Herriko hamaika bazterretatik
gerturatu ziren sortzaileak: Donibane Lohizune, Hendaia, Ar-
ztzetales, Burlata, Iruñea, Etxalar, Gasteiz, Bergara, Irun,
Arrasate eta Zumarraga, besteak beste.

Datorren hitzordua otsailaren 23an jarri dute, Maulen,
maskaradaren uneak marrazkitan jasotzeko. Deialdi hori Ma-
rrazkerazek egin du, Marrazkilari Euskaldunon Topaguneak.


Amagoia Mujika Telleria



Izaskun MURGIZU



Oscar GARCIA GISASOLA



Ma Jesus ASURMENDI



Alicia OSSES



Olga AGIRRE



Gorka BELASKO